

**116/2025 EBAZPENA, maiatzaren 23koa, Uribeko ESiko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Uribeko ESiko Digestio Aparatuko Zerbitzu Sanitarioko burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen osaera onartzen diren**

### **AURREKARIAK**

Uribeko ESiko zuzendari-gerentearen urriaren 28ko 452/2024 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Uribeko ESiko Digestio Aparatuko Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2024ko abenduaren 2ko EHAA 234. zk. eta 2024ko abenduaren 9ko BOE 296 zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun baliouduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2024ko abenduaren 31n amaitu zen.

Uribeko ESiko zuzendari-gerentearen urtarrilaren 16ko 05/2024 Ebazpenaren bidez, prozesuan onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartu zen.

Horiek horrela, ebazpen honen bidez, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen izendapena argitaratzen dira.

### **ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

Deialdian ezarritakoaren arabera, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendari erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, Uribeko ESiko zuzendari-gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaaren webgunean argitaratzeko.

Era berean, Balorazio Batzordearen izendapena argitara emateko aginduko du.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

**EBAZTEN DUT:**

Lehenengoa.– Digestio Aparatuko Zerbitzu Sanitarioko burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzea. (I. eranskina)

Bigarrena.– Balorazio Batzordearen osaera onartzea. (II. eranskina)

Hirugarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Urdulizen, 2025eko maiatzaren 23an.

Uribeko ESiko zuzendari-gerentea,  
JESUS MANUEL SUAREZ ROMAY

**I. ERANSKINA**

**URIBEKO ESI-KO DIGESTIO APARATUKO ZERBITZU SANITARIOKO BURU LANPOSTUA  
ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA**

Onartuen behin betiko zerrenda:

- HARITZ CORTES PEREZ

Baztertuak:

- BAT ERE EZ

Baztertzeko arrazoia:

- 1- Ez da langile finkoa eskatutako kategorian.
- 2- Ez dago jarduneko zerbitzuan eskainitako lanpostuaren lanbide-talde bereko kategorian.
- 3- Ez du titulazioari buruzko eskakizuna betetzen.
- 4- Ez du lan-esperientziari buruzko eskakizuna betetzen.
- 5- Eskabidea epez kanpo aurkeztu da.
- 6- Bestelakoak.

## II. ERANSKINA

### URIBEKO ESI-KO DIGESTIO APARATUKO ZERBITZU SANITARIOKO BURU LANPOSTUA BALORAZIO BATZORDEA

Batzordeburua

**Titularra:** Patricia Rodriguez Landajuela and. (Uribeko ESIko Zuzendari Medikoa)

Lehenengo batzordekidea

**Titularra:** Olga Merino Ochoa and. (Bilbao-Basurtu ESIko zuzendariorde medikoa)

Bigarren batzordekidea

**Titularra:** Cristina Rodriguez Gutierrez and. (Nafarroako Unibertsitate Ospitaleko Digestio Aparatuko zerbitziburua)

Hirugarren batzordekidea:

**Titularra:** Angel José Calderón García jn. (Bilbao-Basurtu ESIko Digestio Aparatuko zerbitziburua)

Laugarren batzordekidea (**IVAPek proposatutakoa**):

**Titularra:** Aitor Orive Calzada jn. (Barrualde-Galdakao Digestio Aparatuko zerbitziburua)

Idazkaria:

**Titularra:** Argiñe Escolástico Larizgoitia and. (Uribeko ESIko Langileen zuzendaria)